

# TxiKittu

2015eko azaroa

155 zbk.

## Gora Sanandresak!!





# Txiis leak

## Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkartea  
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar  
Tel: 943 206776.

## Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Maider Aranberri,  
Ana Aizpurua eta Eibarko  
ikastetxeetako ordezkariak.

## Administrazioa

Marisol Uriarte.

## Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Maider Aranberri, Ainhoa  
Luz eta Ana Aizpurua.

## Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa.

## Copyright-a

Txikitto!

## Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak  
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak  
diruz lagundutako argitalpena



- Zerbitzu sekretuaren egoitza al da?
- Barka, baina ezin dizut esan.

Maider Errasti



- Kanibal bat hegazkinean  
doa eta esaten dio azafatak:
- Oraintxe ekarriko dizut menua.  
Eta erantzuten dio kanibalak:
- Ez, nahiago dut bidaiarien zerrenda  
ikustea.

Peio Gonzalez

Gizon  
bat harategira doa  
eta galdetzen dio  
saltzaileari:

- Baduzu gibelik?
- Ez.
- Eta giltzurrunik?
- Ez.
- Eta garunik?
- Hori ere ez.
- Baina zer nolako gizona  
zara zu?

Nouhayla

Ume bat amarengana doa eta galdetzen  
dio:

- Ama, zergatik gordetzen duzu pijama burkoaren azpian?
- Maitea ba... ez zimurtzeko.
- Orduan zergatik ez duzu amama ere sartzen?

Narrea E.

Ume batek beste bati:

- Badakizu nire anaia bizikletaz dabilela  
urte zituenetik?
- A, bai? Urrun egongo da orduan, ezta?

Aliona Gorriño




Gizon bat jai-aretoko  
atezainarengana hurbildu eta esaten dio:

- Aizu, hemen al da nagi eta alferren lehiaketa?
- Bai, jauna, sartu barrura.
- Ez, ez, sar nazala norbaitek.

Asier Elkoroberezibar

# LOLO, UNTXI EZBERDINA








# Denborapasak

## Letra zopa

Topa itzazu Eibarko bederatzi eskolen izenak

M	A	M	A	U	I	O	S	L	A	S	A	L	L	E	K	I
U	H	V	O	W	Q	R	D	S	A	J	N	H	Y	V	F	T
H	R	P	O	G	J	O	U	T	M	K	O	D	E	R	Y	U
M	G	K	P	O	E	H	G	F	D	S	A	I	R	E	P	R
O	P	F	I	V	X	L	R	T	B	G	T	Z	A	W	Q	B
N	X	X	G	Z	X	Z	M	N	J	Z	D	X	E	Q	R	U
B	Q	E	C	M	U	I	V	R	I	L	A	B	Q	T	R	R
Z	C	B	X	M	O	M	I	O	D	V	T	Q	E	R	T	U
Q	W	E	R	T	Y	U	I	O	P	Z	Z	W	X	C	V	B
I	R	A	M	A	R	D	N	A	O	K	E	T	A	R	R	A
A	S	D	F	G	H	J	K	L	Ñ	I	A	V	F	R	T	Y
M	A	Ñ	A	M	A	T	G	U	Y	T	R	E	Z	C	N	M
Q	R	T	E	U	O	P	S	E	R	D	N	A	N	A	S	A
A	S	D	F	G	H	W	R	E	F	H	U	Y	Q	N	M	S

*Maitena, Naiara, Naroa, Jon*



**Karratuan dauden hizkiak ordenatu hitzak sortzeko**

*Eneko, Urko, Maialen, Laura*

# Lehiaketa





## AURREKO HILEKO IRABAZLEA

Oraingoan ere langile jardun duzue, eta aurreko hileko lehiaketako erantzun asko jaso ditugu. Zozketa egin eta gero, irabazlea **Jule Martin** izan da. Argazkian duzue saria jasotzen. Liburua eta Eibarko Udalak emandako Coliseorako sarrerak eraman ditu Julek etxera. Zorionak!



## 7 desberdintasunak



**BIDALI ERANTZUNAK AZAROAK 24 BAINO LEHEN.  
...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA. Urkizu 11. Eibar.**

Izen-abizena .....


Adina ..... Tel.....

# Denborapasak

Margotu zenbaki bakoitza bere kolorearekin


Unai. M, Ander. G, Delia. O, Teresa. S

1. Berdea
2. Gorria
3. Turkesa
4. Urdina
5. Urdin argia
6. Pistatxo
7. Beltza
8. Grisa
9. Horia
10. Marroia



- 1.- Zure amamaren semea
- 2.- Zure ama edo aitaren ahizpa
- 3.- Zure amamaren alaba
- 4.- Zure amaren edo aitaren anaia
- 5.- Zure aita edo amaren ama

Zein da hitz ezkutua? \_\_\_\_\_



# IA ASMATZEN DUZUEN

## - Zenbat urte dituzu?

Batek daki! Europan ez da ni beste urte dituenik, baina ez naiz zaharra! Erabat modernoa naiz.

## - Orduan ez duzu urtebetetzerik ospatzen?

Bueno... Abenduaren 3an ospatzen dut, egun horretan jende asko akordatzen da nerekin... Baina urtero, egunero, orduro behar dut nik lagunak nerekin egotea.

## - Abenduaren 3an bakarrik egoten zara zu lagunekin ala?

Lagun askorekin bizi naiz, nerekin bizi nahi duten guztiekin. Batzuentzat arrotza naiz, ez naute ezagutzen edo lagunak izatea ezinezkoa dela pentsatzen dute. Baina inondik inora ere!

Nire besoak era eta jatorri guztietako lagunak besarkatzeko prest daude! Begiak itxi eta lagun guztiak egunero, orduro, minutuero... nerekin daudela amesten dut. Baita ezagutzen ez nautenek ere!

## - Zenbat urte biziko zara?

Zuek nahi duzuen beste.

## - Guk?

Bai, bai zuek. Ez al duzue asmatu nor naizen?

## - Mmmm...

Euskera naiz. Baina euskera zuek ere bazarete. Erabiltzen ez banauzue ez naiz luzaroan biziko.

Abenduaren 3an ezezik, egunero behar dut nik zuen mihinpuntan egotea. Ez nauzue bakarrik lagako, ezta?

Ah! Abenduaren 3an etorri mesedez laguntxo guztiekin nire urtebetetzea ospatzera.

**Primeran pasatuko dugu!**





**IZENA**

**JONE**

**ABIZENA**

**DE LA CALLE**

**JAIOTERRIA**

**EIBAR**

- **Itsasoa ala mendia?** Mendia.
- **Goza ala gazia?** Gazia.
- **Uda ala negua?** Uda.
- **Umetan gehien gustatzen zitzaizun ikasgaia? Eta gutxien?**

Gehien ingurune, gutxien ingelesa .

- **Kolore bat?** Arrosa.
- **Kirol bat?** Hipika eta motokrosa.
- **Animaliarik ba al duzu etxean?** Bai. Txakurra eta katua.
- **Txistek kontatu ala entzun?** Entzunnnnn.

- **Birziklatzen duzu?** Bai.
- **Telebistako saio bat?** Gu ta Gutarrak.

- **Pelikula bat?** Flicka.
- **Egun perfektua?** Buff asko eduki ditut. Baina niretako egun perfektuak nire kontu, eta nik bakarrik gauzak egitea lortzen dudanean dira.

Baina jakin ezazue egun "perfektuak" ez direla bakarrik

etortzen, bakoitzak bere egunak egunero landu behar ditu zoriontsu izateko.

- **Nola dago mundua?** Aldaketa handia behar duela uste dut. Pertsona alaiagoak eta onagoak behar ditu munduak.
- **Zerk haserretzen zaitu?** Animaliei tratu txarrak ematen dituzten pertsonak gorroto ditut.
- **Zerk poztu?** Pertsona alaiak eta positiboak ezagutzeak pozten nau.
- **Oporretarako leku bat?** Menorca.
- **Euskara osasuntsu al dago?** Nire ustez bai.
- **Zer egin euskara bultzatzeko?** Hitz egin, hitz egin asko. *Gu Ta Gutarrak* programa hasi baino lehen ez nuen inoiz euskeraz hitz egiten, eta euskeraz egitea kostatzen zait, baina poliki poliki menperatzen hasi dut, eta orain gustuko dut.
- **Abesti bat?** *Are you with me.*
- **Opariak jaso ala egin?** Biak.

Jasotzea nori ez zaio gustatzen? Baina oporiak egitea eta prestatzea ere asko gustatzen zait.

- **Irakurri duzun azkeneko liburua?** Donde tus sueños te lleven.
- **Kuadrilla perfektuak zein osagai izan behar ditu?** Nire ustez ez dago kuadrilla perfekturik. Nik ez daukat kuadrilarik, baina bai lagun asko eta inportanteena zure hobbyak eta pentsatzeko modu berdina daukaten pertsonekin elkartzea da.
- **Lagunekin irteteko leku / herri bat?** Gu motorrak hartu eta... Deba, Ondarru, Getaria, Orio, edo Donostiara joaten gara.
- **Zer eskatuko diozu Olentzerori?** Mmmm... galdera interesgarria, urte honetan ondo portatu naizenez motor berri bat edo kotxe bat eskatuko diot. Espero dut zortea izatea.

# JONE DE LA CALLE

Jone De la Calle eibartarra, GU TA GUTARRAK saioko lehiakidea izan da duela egun gutxi batzuk arte. Goizez Administrazioako erdi zikloa ikasi eta arratsaldez adineko emakume bati etxekolanak egiten laguntzen dion gazte hau Euskal Herri mailan ezaguna bihurtu da. Pozik ibili da saioan parte-hartzen eta esperientzia bikaina eta ahaztezina izan dela kontatu digu. Oraindik oso ohituta ez badago ere, gustora hartzen ditu berarengana hurbildu eta argazki bat eskatzen dioten umeak.





Kaixo lagunok! Hemen gaude berriz ere **ARRATEKO ANDRA MARI** Ikastetxetik, prest ditugun ekintzen berri emateko:

Azaroaren 2an, LH-ko 6.mailakoak liburutegira joan ginen, bertako funtzionamendua ezagutzeko.

Eta begiratu zelako gauza politak egiten hasi garen bazkal osteko atsedendietan antolatuta ditugun eskulan tailerretan!

Gelditu barik ibili dira **URKIZU** ikastetxeko ikasleak urrian zehar. Pagoetako Natur Parkea bisitatzeko aritu dira 3. eta 4. mailakoak eta ondo baino hobeto pasatzeaz gain, Iturritan baserrian elikagaien piramidea aztertu, ogia egiteko prozesua landu eta ogia egin zuten. Ondoren, Agonegira abiatu ziren burdinola eta ur-errotaren funtzionamendua ikusteko. Asko disfrutatu genuen parkean dauden eraikuntzetan jolasten eta landareria begiratzen. Gainera, 6.mailakoek Drogomenpekotasunaren inguruko mintegia jaso zuten "Sasoa" elkartearen eskutik. 5.mailako ikasleak Portaleara joan ziren "Tramankuluak" motibazio-saioa ikustera. Eta 3.mailakoek eskolako baratza martxan jarri zuten. Guzti hau gutxi balitz, Kulturartekotasunaren inguruko "Sentsibilizazio" saioak jasotzen dihardute. A ze martxa daramaten Urkizuko gure lagunok!



**ALDATZE** ikastetxeko 4., 5. eta 6. mailakoek Eskolabarriko lagunaren bisita izan zuten urriaren 2an eta egun aparta pasa zuten Arraten. Ikusi zelako koadrila ederra batu zen!

**ITURBURU**ko 3.mailako ikasleak, eibartarrak izan arren, geure herria hobeto ezagutzeko aukera izan dute. Herriak dituen zerbitzuak, ingurune fisikoa, auzoak ... gelan aztertu dituzte. Hainbat mapa, argazki eta irudiak ikusi ondoren, kalez- kale ibiltzea askoz ere dibertigarriagoa dela esango dute. Horregatik urtero moduan, egun bat igaro dute herria hurbiletik ezagutzen. Industria Museoa, Liburutegia, San Andres eliza, Azitaingo eliza eta Urkizuko ingurua izan dira atal nagusiak. Urkizuko iturrian ditugu poz-pozik, eskolan ikasitakoa bertatik bertara ezagutzen.



Kaixo lagunak, hemen gaituzue berriro **LA SALLE** Isasin urrian egindako ekintzekin. Urriaren 7an 5.maila-A eta 9an 5.maila-B ogigintza egitera joan ziren. Bakoitzak egindako opil goxoa etxeetara dartzeko aukera izan zuten. 13an eta 14an 5 urtekoak Barriara joan ziren gau bat pasatzera. Han bertako ingurunea ezagutu zuten.

20an 5.mailakoak Portaleara joan ziren Tramankuluak eskolan ikuskizuna ikustera eta amaitzeko, 4.mailakoak

28tik 30era Lurraskara joan ziren eta eguraldi ezinhobea egin zuenez, programatuta zituzten ekintza guztiak aurrera eramanez ahal izan zituzten.



**SAN ANDRES** ikastetxeko 4. mailakoak hiru egunerako Sastarrain baserria joan ziren, Ekain berri kobazuloa ere ikusi zuten. Oso ekintza politak egin zituzten eta oso ondo pasatu zuten!

## Goazen arrantzara!


Ondorengo pausoak jarraituz gero, arrantza-joko dibertigarria egingo duzue. Hau proposamen bat besterik ez da. Nahi izanez gero, neurri haundiagokoa ere egin dezakezue, zutik jolasteko modukoa.

### MATERIALA

- Koloretako kartulinak
- Kartulina zuria
- Koloretako plastikozko orriak
- Hari lodia (edo artilea)
- Zulatzailea
- Metalezko klip-ak
- Makil bat
- Kubo bat

### PAUSOAK

- Kartulinan arrainen irudiak margotu. Uretan erabili nahi badituzue, plastikozko orriak erabili. Arrainak dibertigarriagoak izan daitezten, kartulina zurian eskeletoa margotu eta itsatsi arrain bakoitzaren gainean, irudian ikusten duzuen bezala.
- Arrainen ahoan zulo txo bat egin eta pasa bertatik klipa.
- Hari edo artile zati bat lotu makilari, kanabera egiteko eta lotu hariari iman txikitxo bat. Jarri arrainak kuboan, urarekin edo ur gabe, eta goazen arrantzara!



## SUKALDARITZA txokoa

## Patata beteak

### OSAGIAK

- Patata handiak (pertonako bat)
- Arrautzak
- Urdaiazpikoa (egosia ere izan daiteke)
- Gazta birrindua
- Perrexila edo tipulina
- Gurina

### PAUSOAK

- Patatak albal-paperean bildu eta labean eduki 180 gradutan 45 minutuz.
- Moztu patataren goiko aldea eta koilara batekin patata hustu. Gurin apur bat sartu zuloan. Gatza bota. Ondoren urdaiazpiko zatitxoak eta gazta gehitu, baina utzi lekua arrautzarentzat.
- Arrautza bota zuloan, kontu handiz, apurtu gabe. Gazta eta urdaiazpiko gehiago bota dezakezue gainetik. Gatza bota.
- Labean sartu 180 gradutan 20-25 minutuz, eta ateratzerakoan perrexila edo tipulina jarri gainetik.



# San Andresak

bueltan, lehiaketa mordoxka bat antolatzen dira herrian. Orri honetan dituzue lehiaketa horietako irabazleak. Zorionak guztioi!

**IKER PEREZ, 12 URTE**

## **INDALEZIO OJANGUREN ARGAZKI LEHIAKETAKO IRABAZLEA**

- Zergatik aurkeztu zara argazki lehiaketara?

Joaten garen leku guztietan ateratzen ditut argazkiak, eta ateratako batzuk gustatu zitzaizkidanez, aurkeztea pentsatu nuen.

- Baina ez da aurkeztu eta irabazten duzun lehen aldia ezta?

Ez, orain dela bi urte aurkeztu nintzen, eta orduan ere irabazi egin nuen. Iaz, aurkezteko asmoa banuen ere, epea pasatu egin zitzaidan.

- Eta etorkizunera begira, argazkilaritzarekin jarraitzeko asmoa duzu?



Ba hobby bezala bai, asko gustatzen zait. Familian ohitura handia dugu argazkiak ateratzeko, aita eta aitxitxa betidanik ikusi izan ditut argazkiak ateratzen.

**JOKIN HAZAS, 12 URTE**

## **AIRE ZABALEKO MARRAZKI LEHIAKETAKO IRABAZLEA (12 URTE)**

- Zergatik aurkeztu zinen lehiaketara?

Orain dela bi urte aurkeztu nintzen eta esperientzia gustatu zitzaidan. Horregatik pentsatu nuen errepikatzea. Hirugarren urtea izan da.

- Zer sentitu zenuen irabazlea zinela jakin zenuenean?

Poztasun handia. Familia osoa poztu zen, baina batez ere amama Gloria.

- Aurrera begira zer asmo duzu?

Gustatuko litzaidake marrazketarekin jarraitzea. Orain, batzuetan, nire osabaren tailerrera joaten naiz. Grabatzailea da eta asko gustatzen zait. Orain zaletasun moduan hartzen dut, baina etorkizunean zeinek daki. Agian jarraituko dut.



**MIREN EREÑA**

## **SAN ANDRES KARTEL-LEHIAKETAKO IRABAZLEA 11-14 URTEKOEN MAILAN**

- Zergaitik hartu duzu parte?

- Marrazki-eskolan nabil ikasten eta irakasleak animatzen gaitu lanak aurkeztera.

- Lehenengo aldia izan da?

- Ez, laugarrena izan da.

- Zer sentitu zenuen irabaztean?

Sorpresa handia hartu nuen.

Amaren dei baten zain nengoen eta deia hartu eta... ama? galdetu nuen. "Udaletxetik deitzen dizugu, San Andres kartel lehiaketako irabazlea zara!!!. Sorpresaaaaa.

- Etorkizunean margotzen jarraitzeko asmorik bai?

Bai!!! Margotzen jarraitzeko asmoa daukat eta behin irabazi dudala animatuta nago!!! Aire zabalean ere margotzekoa nintzen baina... azkenean ez nintzen irten.



"Eraman" kartela

**PATXI URIBE**

## **SAN ANDRES KARTEL-LEHIAKETAKO IRABAZLEA 10 URTERA ARTEKOEN MAILAN**

- Zergatik aurkeztu zinen lehiaketara?

- Marrazki eskolan dihardut eta bertako irakasleek animatu ninduten.

- Parte hartzen duzun lehenengo urtea da?

- Ez, bigarrena.

- Gustatu zaizu esperientzia?


- Bai, parte hartzeko gogoia nuen, baina irabaztea kasualitatea izan dela uste dut. Momentuan bururatzen zaidana egiten dut.

- Etorkizunean marrazketarekin jarraituko duzu?

Ez dakit zer egingo dudan. Agian marrazketarekin jarraituko dut, baina oraindik ez dakit.



"San andresak balkoitik" kartela



# AZAROKO agenda

## Azaroak 21, zapatua

**COLISEO ANTZOKIAN 17:00ETAN.**

“THE BALLOON RED” antzezlan.

String Theatre- Britaina Handia. Sarrera 5 €  
Haur eta globo baten arteko laguntasunaren istorioa kontatzen du ikuskizunak.

## Azaroak 22, domeka

**UNTZAGA PLAZAN. 12:00ETAN.**

“ESKOLARTEKO BAKAILAO LEHIAKETA”

Bakailu kofradiak antolatuta.

## AZAROAK 28, zapatua

**UMEEN LIBURUTEGIAN. 18:00ETAN.**

ZAPATUKO IPUINA: “MUNDU BERRI. NOL?” Ana Rodriguez.

50 minutu. 3 urtetik gorako umeentzat. Saio irekia.

## AZAROAK 28, zapatua

**KALEJIRA HERRIAN ZEHAR.**

“USTEKABEREN XV.URTEURRENA FANFARREN TOPAKETA”

Fanfarreren kalejira herrian zehar egun osoan.

## AZAROAK 29, domeka

**UNTZAGA PLAZAN. 16:30- 18:30**

“HERRI KIROLLEN HAUR PARKEA”.

**UNTZAGA PLAZAN. 18:30- 21:30**

“eMePeBost” TALDEAREKIN DANTZALDIA.

## AZAROAK 30, astelehena. San Andres Eguna

**9:30:** San Andres nekazal azoka eta ganadu erakusketa.

**12:00:** Aizkolarien txapelketa.

**12:00:** Plazara dantzara erromeria. Kezka Dantza Taldearen eskutik.



## ABENDUAK 5, zapatua

**COLISEO ANTZOKIAN. 17:00ETAN.**

ZAPATILLA GORRIDUN MUTIKOA antzezlan  
Sarrera 5 euro.

## ABENDUAK 12, zapatua

**COLISEO ANTZOKIAN. 17:00ETAN.**

MURSEGO UMEENTZAT. Maite Arroitauregi.  
Sarrera 5 euro.

### **ARIES** (martxoak 21-apirilak 20)

IKASKETAK: Poz pozik zabilta gelakideekin, segi horrela! AMODIOA: Begi urdin horrek asko begiratzen zaitu. OSASUNA: Mukiak zintzilik ibiltzea ez da batere polita.

### **TAURUS** (apirilak 21-maiatzak 21)

IKASKETAK: Liburuak hautsez betetzen ari da, noiz irakurri? AMODIOA: Txukun txukun janzen zara, noiz begiratuko zaituen zain... OSASUNA: Txorizo bokadilloa eguneru? Kontuz!!!

### **GEMINIS** (maiatzak 22-ekainak 21)

IKASKETAK: Burua lehertzeaz eta oraindik gai erdia ikasita... AMODIOA: Gutun misterioitsu hori, norena ote?? OSASUNA: Ukendua ematen hasi beharko, txakur ez zula kentzeko!

### **CANCER** (ekainak 22-uztailak 22)

IKASKETAK: Matematikak ez dituzu gogoko, buruketak... burukomina... AMODIOA: Ilea moztu du eta ez diozu ezer esan... OSASUNA: Makarraoiak ezin dira eguneru jan!!!

### **LEO** (uztailak 23-abuztuak 23)

IKASKETAK: Oso ondo egin dituzu lanak, eta andereñoak txalotu! AMODIOA: Lotsa... kolore gorriak... animo!! OSASUNA: Korrika piskat egitea osasuntsua da. Janzi zapaatilak eta hasi!

### **VIRGO** (abuztuak 24-irailak 23)

IKASKETAK: Gabonetako oporrak noz helduko diren zain... AMODIOA: Zein ondo maite zaituela entzutea, ezta?? OSASUNA: Lasaitu zaituz, nerbioak ez dira onak-eta!

### **LIBRA** (irailak 24-urriak 23)

IKASKETAK: Ikasi duzu eta sekulako nota izan duzu!!! AMODIOA: Abesti bat irratian zuretzako... maite zaitu!! OSASUNA: Manga motzetik manga luzera. Udatik udazkenara bezala.

### **SCORPIUS** (urriak 24-azaroak 22)

IKASKETAK: Liburuak gelan utzi duzu. Etxekolanak nola egin? AMODIOA: Aixxx bere atzetik zabilta... Noiz arte? OSASUNA: Eskuko zauria ondo zaindu.

### **SAGITARIUS** (azaroak 23- abenduak 2)

IKASKETAK: Zure ahaleginak alferrik ote? AMODIOA: Muxu eman dizu... Zorionekoa zu! OSASUNA: Perretxikoak biltzera eta gero jatera!

### **CAPRICORNIUS** (abenduak 22- urtarrilak 20)


IKASKETAK: Ikastutea biribil daramazu!! AMODIOA: Laster emango dizu erantzuna, lasai. OSASUNA: Goxokiak goxo... Dentistak haserre egingo dizu!!

### **ACUARIUS** (urtarrilak 21- otsailak 18)

IKASKETAK: Ikasturte hasierako boligrafoak... Non daude? AMODIOA: Ez haserretu... bakeak egin... OSASUNA: Beltzunez josita dituzu belauak. Zaindu!!

### **PISCIS** (otsailak 19-martxoak 20)

IKASKETAK: 8 bat azterketan! Zorionak!! AMODIOA: Beste lagunekin ere egon behar da, ez dira zutaz ahaztu! OSASUNA: Goxokia... asteburuetarako!!!



### **NOLA EGITEN DUTE DORDOKEK? (6-8 URTE)**

Ur goibel eta haserre dago. Lortuko du Izadik neba berpiztea? Eta, bide batez, ba al dakizue nola egiten duten dordokek?



### **NEMESIOREN TRIKITIXA (8-10 URTE)**

Zergatik dio Nemesioren amak pertsonak diatonikoak garela? Zergatik diote trikitixa ez dela Euskal Herrikoa? Zergatik daude zientoka trikitixa armairuetan gordeta? Kezka askori egin behar dio aurre Nemesiok.



### **BIHOTZAK DUN-DUN (10-12 URTE)**

Learen aita langabezian geratu, eta goiko Ixidro zaharra zaintzen hasi da. Neskatoak harreman hori, eskolako gorabeherak, familiako kontuak, laguneren arteko abenturak eta abar kontatuko dizkigu, baita noizean behin izaten dituen “bidaia” ere. Bidaia horietan amets bera izaten du beti: oraindik zein den ez dakien lore bat topatu beharra.




### **POTTOLOK GAUPASA EGIN DU (6-8 URTE)**

Zirku giroan murgilduko ditu egileak 6-8 urte bitarteko gaztetxoak. Inprentako letraz idatzia eta kolore biziko ilustrazioz jantzia.



### **HITZ POLITAK JAN EGITEN ZITUEN SORGINA (8-10 URTE)**

Alberto erdi mutututa ibiltzen da, eta eskolan barre egiten diote. Are gehiago, kontatu duenean Yoli bere txakurrak ezkutatu egin diola irakurri beharreko ipuina. Egia ote? Edo aitzakia hutsa? Bestiak errespetatuz tratatzea bizikidetzarako arau bikaina dela ikasiko duzu Alberto eta bere kideekin.



### **BERBONTZI (10-12 URTE)**

Berbontzi liburujale bat da. Eta, liburujale guztiei gertatzen zaien bezala, tinta eta papera dira bere mokadurik gustukoenak. Arazo bakarra honako hau da: Berbontzik, noizbehinka, irakurri berri dituen istorioak ahoko zulotik kanpora botatzen dituela burbuila grisen itxuran, eta bere inguru osoa fantasiaz betetzen da.


# bitxikeriak



Zaldiek zutik egiten dute lo. Gainera, taldean bizi direnean, zaldietako bat beti dago esna, taldea zaintzean, arriskua egonez gero besteei abisatzeko.



Batezbeste, Merkurioko temperatura egunez 350 gradutakoa da, eta gauean -170 gradutara jaisten da. Egunik beroenetan 427 gradura irits daiteke!




Azkeneko ikerketen arabera, Tyrannosaurus rex-en ikusmena gizakiona baino 13 bider hobia zen



Kleopatrak ezpainetarako margoa txindurri eta kakalardo gorri txikituekin egiten zuen.



Eskorpioi batzuk urtebete iraun dezakete janaririk eta urik probatu gabe.



Orain dela 15 milioi urte, Australian, ahatearen antzeko espezie bat bizi izan zen, baina zaldi baten neurrikoa.




Pertsona batek bere bizitza osoan, guztira, bi aste ematen ditu semaforo baten aurrean.



Iceberg-ik handiena Belgika baino handiagoa da.



Elefanteek gizakion hizkuntza ezberdinak bereizten dituzte.



Ahatearen karrankak doinu ezberdina dauka munduko herrialde bakoitzean.



Japonian peluxeentzat bidaia-agentzia bat dago; jostailua ateratzen dute paseatzera, jaberik gabe.



Kaspiar Itsasoa ez da itsasoa, munduko ur gaziko lakurik handiena da.

# KANPIN MISTERIOTSUA

**G**aur kanpin batera noa nire gurasoekin.

Ohetik altxatu naiz, gosaldut egin dut, jantzi egin naiz eta kotxera joan naiz gurasoekin.

Kanpinera iritsi garenean denda antolatu dugu. Ordubete pasa eta gero... lagun batzuekin topatu gara. Ni lagunarekin bere dendara joan naiz jolastera.



Pentsatu dugu, gauean, “gau misteriotsua” izatea.

Arazo bat dugu!

Gaua da, ez dago argirik eta linterna ez dabil. Gauero berdin, eta berdin, eta berdin...

Azkenean konturatu gara kanpin horretan, asteburu horretan... argirik ez zegoela!

Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko.  
**MEREZI DU...**





zu margolari!